Urduñako hiria

BERE NORTASUNA

Gaur egun, Urduñak harrotasunez heltzen dio hiri titulua duen Bizkaiko probintziako udalerri bakarra izateari. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidego osoan Erdi Aroko jatorriko azoka-plaza handiena du.

Gune estrategikoa izan zen hainbat mendez goi-ordokiaren eta itsasoaren arteko merkataritzako gaien eta salgaien kargarako joan etorrian.

Urduña historikoan lurraldetasuna, merkataritza eta fiskalitatea ditu mintzagai. Bere kontaketa **Multzo Historiko eta Monumental** izendatutako herrigune historikoak berak egiten du.

Bertako eraikin enblematikoenak eta ondare artistiko garrantzitsuena aurkezten dizkizugu. Azken horietan artean Kultura Intereseko Ondare (KIO) katalogatutako 3 erretaulak nabarmentzen dira.



Gozatu bertako eremuekin
Behatu xehetasunei
Argazkiak atera eta partekatu



TURISMO-BULEGOA

www.ordunaturismo.com

Foru Plaza, 9 - Alondegia
Tel. 945 38 43 84

turismo@urduna.com

ORDUÑA TURISMO

Bizkaia foru aldundia diputación foral

etikoa Turismo Euskadi

EUSKADI BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

GURE ERRETAULAK

Urduñako Hiriak San Pedroren, Familia Sakratuaren eta Antiguaren erretaulak ditu, sekulako harribitxia. Kultura Intereseko Ondare modura kalifikatuak, argitalpen honen xedea da horiek hedatzea.

SAN PEDROREN ERRETAULA

Izen bera duen "Jasokundeko Andre Mariaren eliza-gotorlekuko" kaperan kokatua, 1516 eta 1520 bitartean eraiki zen, eta gotiko berantiarraren erretaula-obren artean kokatzen da. Hispania eta Flandriako lana, Anbereseko tailerrekin lotua argi eta garbi. Bankua, bi gorputz eta errematea ditu, eta bertan titularraren (San Pedro) eta maisuaren (Jesus) bizitzak eszenifikatzen dira paraleloan. Ohola egituratzeko lauki-zilo bakoitzean hedatzen den ikonografia nabarmentzen da.



ANTIGUAKO ERRETAULA

1805eko erretaula neoklasikoa, eta Esteban de Alegriari egotzi ahal zaiona. Arreta tenpluko protagonista eta titularrak bereganatzen du, Antiguako Andre Mariaren irudiak, moral baten gainean irudikatua, zeina, tradizioak dioenez, artzain baten aurrean agertu baitzen horrela. Tailuak (XIV: mendea) ia metro bateko altuera du, ezkiaren zurarekin dago egina, eta Andre Mariaren eredu gotikoarekin dator bat. Erretaula neoklasikoen prototipoa, material nobleak erabiltzeagatik nabarmentzen da, sekula imitazioetara jo gabe. San Fernandoren Errege Akademiak gainbegiratuta egin zen osorik.



FAMILIA SAKRATUAREN ERRETAULA-MULTZOA (1688-1689)

Multzoa erretaula nagusiak eta alboko biek osatzen dute, eta eraikuntza aldetiko homogeneotasuna ematen du, Jesusen eskemaren estandarte barrokoan bilakatuz. Patronatuaren lana da, eta tenpluaren burualdean, erretaula nagusiaren bi aldetara, bere mezenasen erlikiak gordetzen ditu: Juan de Urdanegui eta Constanza de Luxán, olio-pintura banatan irudikatuak.



ORTÉS DE VELASCO EDO ARBIETO JAUREGIA

1





XVI. Mendeko eraikuntza errenazentista, kutsu militar nabarmena duen, bere angeluak errematatzen dituen dorretxotan ikus daitekeen eran. Harlanduz osorik egindako jatorrizko eraikuntza murrura erantsita zegoen. Hor, barnealdean, horma-atal bat mantentzen da, ezkutuan geratu dena arkupedun beheko solairua harresiz kanpo handitu ondoren. Goiko solairuak adreilu trinko estuz eta zurezko egituraz eraikiak dira.

ANDRE MARIAREN ELIZA GOTORTUA

2





Tenplu gotiko honen eraikuntza-lanik handiena XIV. eta XV. mendeen artekoa da. Egungo sarrerari erantsia eta burdin-sarearen azpian, jatorrizko sarrera ikus dezakegu. Haren gainean dorre handi bat jasotzen da, goialdean garaiko harlangaitza mantentzen duena. Barnealdean, arkitektura gotikoa eta kaperak nabarmentzen dira. Azken horiek ireki egin ziren XV. Mendearen amaieraz geroztik, eta lan esanguratsuak gordetzen ditu, besteak beste, Sortze Garbiaren kapera ixten duen burdin-sare errenazentista edo San Pedroren kaperako erretaula hispano-flandestarra. Halaber, bere absidearen goialdea estaltzen duten mural-pintura errenazentistak nabarmentzen dira.

MULTZO GOTORTUA

3





Absideak edo tenpluaren goialdeak osatutako defentsarako multzoa. Bertan erronda-bidea, kontrahormen artean zulatua, eta hari erantsitako harresi-barruko barrutia nabarmentzen dira. Horrek 1.500 metro karratu inguruko eraikuntza angeluzuzena suposatzen du, multzoaren harlangaitz sendoak babestua.

UDALETXEKO DORRE-JAUREGIA

4






XIII. mendeko dorre bati erantsia, murruetan barna igarotzen zirenen artean mantentzen den bakarra da, eta XV. mendean lehendabiziko kontzeju-etxe izan zen. Emaitza dorre-jauregi erako multzo interesgarria da. Eskuinera jatorrizko hirigunera sartzeko jatorrizko atarietako bat ikus daiteke, Atari Iluna.

FORU PLAZA ETA KARRERAPEAK

5





Euskadiko hiribilduetako Erdi Aroko jatorrizko azoka-plaza handiena da. Jatorrian merkataritza-jardun bizia hartzeko eraikia izan zen, eta horren adierazle ziren urtean ospatzen ziren bi azoka handiak. Herrigunean txertaturik geratu da XIII. mendearen bigarren erdialdeaz geroztik.

DÍAZ PIMIENTA EDO ZALDIBAR JAUREGIA

6





Funtsezko barrokismoko eraikuntza eredua. Bertan harlandu ona eta jatorrian alboetan zituen bi dorreak nabarmentzen dira.

MIMENZA JAUREGIA

7





Carlos III.aren eta Carlos IV.aren erregealdien artean (1787-1792) eraikitako neoklasizismo ereduko eraikuntza, zerga-bilketarako eta gaiak eta salgaiak kontrolatzeko zeregin argia betetzen zuena. Alondegi ilustratuaren ereduarekin dator bat. Bertan, barrualdeko erdialdeko patioak zein bere inguraldean kokatutako gelek garaiko arkitektura-joerak jarraitzen dituzte.

ADUANA

8





Carlos III.aren eta Carlos IV.aren erregealdien artean (1787-1792) eraikitako neoklasizismo ereduko eraikuntza, zerga-bilketarako eta gaiak eta salgaiak kontrolatzeko zeregin argia betetzen zuena. Alondegi ilustratuaren ereduarekin dator bat. Bertan, barrualdeko erdialdeko patioak zein bere inguraldean kokatutako gelek garaiko arkitektura-joerak jarraitzen dituzte.

FAMILIA SAKRATUAREN ELIZA

9





Juan de Urdanegiren mezenasgoaren baitan eraikitako eraikuntza barrokoa. Bere familia-ezkutua ikus daiteke fatxadan. Hiru kaletan banatuta ageri da. Horietan, kartela itzeletan, jesulagun kutsuko anagramak aurki ditzakegu, jatorrian ordena horrek zuzendu baitzuen eraikina. Santiago Raón arkitekto frantziarrak gidatu zituen lanak. Barnealdean Euskadi osoko erretaula-multzo garrantzitsuenetakoa gordetzen da.

VELASCO JAUREGIA

10





Hiribilduko defentsarako-hesiaren kuboetako bat hartu zuen eraikuntza errenazentista. San Francisco Atariaren inguruan eraiki zen, Burgosetik zetorren bidean. Gaztelako kondestableak, Velascotarren familiakoak, Penintsulako iparraldeko aduanetako itsasoko hamarrenak kobratzeko eskubidea baliatu zuen denbora luzez.

OLASO JAUREGIA

11





Herrigunearen alboetako batean kokatuta egon zen eraikuntza neoklasikoa. Hasiera batean, bertan zegoen Antiguako Ataria. Bere fatxada nagusia erdi-puntuko arku bidez irekitzen da. Atariaren barnealdeko apaingarriak nabarmentzen dira, eta baita mendebaldeko fatxadaren teilatu-hegalean nekez ikus dezakegu irudi naturalistak dituen dekorazioa ere.

SANTUARIO DE NUESTRA SEÑORA DE LA ANTIGUA

12





XVIII. mendeko eraikuntza barrokoa, kanpoaldean Urduñako hiriaren ezkutua ageri duena. Barnean, zaindariaren irudia hartzen duen erretaula neoklasikoa du. Kokalekuak zonaldeko herritarren kokapena adierazten du. Beraz, aurretiazko eraikuntza batzuk egon ziren egungoaren aurretik, albo batean, arkupe errenazentistaren azpian ojiba-portada gotikoan agerian geratzen den eran, non XVI. mendea sartuta ostatua eta ermita erantsia kokatu baitziren.



Bertako bisita gidatuan parte hartzea da kontakizun hau ezagutzeko eta bertako monumentu- eta arte-ondarera sartzeko modurik onena, non San Pedroren erretaula gotiko berantiarra eta bertan eliza gotortuaren erronda-bidea nabarmentzen baitira. Ez galdu!



BISITA GIDATUEN EGUTEGIA

1. Hirigune historikoa. Zuri kontatzeko historia bat
Larunbat guztietan, urtarrilean eta otsailean izan ezik

2. Gauez egiteko bisitak
- Urduña, gaueko lilura
  Martxoko eta urriko lehendabiziko hiru ostiralak
- Antzeztutako gaueko ibilaldia
  Martxoko eta urriko azken ostirala

3. Ondarearen Europako Jardunaldiak
Urrian. Gaikako bisiten programa

Kontsulta eta erreserbak: www.ordunaturismo.com

Gure programazioei buruzko informazioa jaso nahi baduzu, eman izena gure berripaperera.